

JOKABIDE KODEA

1. SARRERA

1.1.- Helburua

Jokabide Kode honen helburua langile, bezero, hornitzaile, kontu auditore eta erakunde publiko zein pribatu guztiei gogoraraztea da Eika taldeak Eikak jarduten duen herrialdeetan indarrean dauden lege eta arauak betetzeko duen konpromiso irmoa, edo araudia hain zorrotza ez den herrialdeetan, kode honetan zehaztutakoa betetzeko.

2. APLIKAZIOA

2.1.- Hedapena

Jokabide Kode hau Eika taldeko kide guztiek edo kooperatibaren izenean edo kooperatiba ordezkatzuz jarduten duten guztiek bete beharko dute. Halaber, Eika taldearentzat edo bertako instalazioetan jarduerak egiten dituzten kanpo pertsona edo enpresei ere aplikatuko zaie.

2.2.- Betetze mailaren jarraipena eta kontrola

Sistemen Koordinatzaileari dagokio Jokabide Kodearen betetzea monitorizatzea. Hauek dira, laburtuta, bere zereginak:

- a) Eika taldeko guztiei, eta interesa duten guztiei kodearen komunikazio zuzena bermatzea.
- b) Kodea berrikustea
- c) Konfidentziasuna zaintzea
- d) Kodearen inplementazio maila urtero neurtzea.

2.3.- Kodearen komunikazioa

Jokabide Kode hau Eika taldeko langile guztiei jakinaraziko zaie, horretarako ezarriko diren harrera eskuliburuaren bitartez. Eskuliburu horietan Jokabide Kode hau irakurri eta betetzeko obligazioa adieraziko da.

Kodean aldaketak eginez gero, interes taldeei berriro komunikatuko zaie:

- a) Organo sozialei. Arduraduna: Kontseilu Errektoreko lehendakaria
- b) Eikako pertsona guztiei. Arduraduna: Zuzendaria eta

Departamentuko burua, bide exekutibotik

c) Lehengaien eta osagaien hornitzaileei DG06.00.02 Hornitzaileen jokaera kodea zabalduko zaie. Arduraduna: Erosketen zuzendaria

d) Beste hornitzaileei. Arduraduna: Erosketaren arduraduna.

e) Bezeroei, ikuskatzaileei... Arduraduna: Harremanaren arduraduna.

Kode honen kopia bat Eika taldearen intranetean egongo da, eta estranetean beste bat.

2.4.- Kodea betetzeko derrigortasuna

Jokabide Kode hau derrigor bete behar dute Eika taldeko pertsona guztiek, eta baita Eikako kontu ikuskatzaile, aholkulari, hornitzaile eta Eikatik diru laguntzak jasotzen dituztenek ere.

3.- JOKABIDE ARAU OROKORRAK

3.1.- Aplikatu beharreko legeria

Eikak negozioak egiten dituen herrialdeetan indarrean dauden lege eta araudiak bete behar dituzte Eika taldeko pertsona guztiek.

Horretarako, Eikak arlo bakoitzean ezarri beharreko lege betekizunen zerrendaren berri emango du. Eta aldian-aldian sistemaren barne ikuskapenen bidez betetze-maila berrikusten du.





3.2.- Ustelkeria, eroskeria eta oparien politika

Ustelkeria eta eroskeria mota guztiak debekatuta daude, bai modu aktiboan egindakoak eta baita modu pasiboan egindakoak ere. Debekatuta dago hirugarrenei zuzenean edo zeharka eskaintzea edo/eta onartzea, eskudirutan zein gauzatan, edozein opari, mesede edo kalte-ordaina, bere balioa dela eta adeitasuna gainditzen duen eta xedearekin egindako opari gisa interpreta daitekeena.

Opariak entregatu eta onartzea onartzen da balio ekonomikorik gabeko edo sinbolikorik ez dutenean, eta kortesia zantzuei erantzuten dietenean.

Egoera edo herrialde jakin batzuetan, fede onez eskainitako opari bati uko egitea zentzugabetzat edo negozio-harreman batentzat ere kaltegarria dela interpreta daiteke. Egoera horietan, oparia Eika Taldearen izenean onartuko da eta Giza Baliabideen Zuzendaritzara entregatuko da DG07.04.03 Oparien Politikan zehaztutako helburuetarako erabiltzeko.

Gainera, eta eragin desegokia saihesteko, langile baten hurbileko familiako kide batek ez du onartu behar balio sinbolikoa baino gehiagoko oparirik.

Eikak ezin ditu hautagaiak edo alderdi politikoak finantzatu.

3.3.- Kontuak ematea

Eikak agintari eskudunei erantzuten die aplikatzen zaizkion lege eta araei dagokienez. Bestalde, Eikaren zuzendaritza kooperatibako organo eskudunen aurrean, baita bazkide guztien aurrean ere, kooperatibaren urteko Batzar Nagusian kontuak emango ditu.

3.4.- Gardentasuna

Eikak kudeaketa gardena egiten du gizartean eta ingurumenean eragina duten erabaki eta jardueretan. Ingurumenari lotutako alderdiei eta gizartean eta ingurumenean duten eragin ezagun eta probableei buruzko informazioa eskuragarri dago (intranetean, dagozkien pertsonentzat).

3.5.- Portaera etikoa

Eikaren jokabidea pertsonen zintzotasunean, zuzentasunean eta osotasunean oinarritzen da.

Horretarako, kudeaketa eredia garatu du eta Eikaren balioak definitu ditu.

3.6.- Alde Interesdunen interesen errespetua

Eikak interes taldeak identifikatu ditu, eta baita haien premiak eta espektatibak ere. Hauek

F07.04.01.001 Interes-taldeak eta haien beharrak dokumentuan jasota daude.

Eikak interes taldeak eta haien legezko eskubideak onartu eta errespetatzen ditu.

Eikak, berriz, zuzentasuna erakusten du bezeroekiko, eta ez die justifikatu gabeko onura edo abantailarik ematen bezero batzuei beste batzuen kaltetan. Era berean, zuzentasuna erakusten du hornitzaileen aurrean, kontratista edo hornitzaile batzuegandik justifikatu gabeko onura edo abantailak jasotzea beste batzuen kaltetan ez onartzuz.

3.7.- Pribatutasuna, datuen babesa eta isilpeko informazioa errespetatzea

Eikak bere langile eta kolaboratzaileen intimitaterako eskubidea errespetatzen du. Datu pertsonalen eskaera eta tratamendua Kooperatiba Sozietatearen ohiko jarduerarako eta indarrean dagoen araudia garaiz betetzeko ezinbestekoa den informaziora mugatuko da.

Eikak beharrezko neurriak hartuko ditu dituen datu pertsonalen konfidentziasuna gordetzeko eta horien tratamendua eta atzitzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideen erabilera gai honi buruz indarrean dagoen legediaren arabera egiten dela bermatzeko.

Eika hirugarrenen jabetza intelektual eta industrialak babesteko konpromisoa hartzen du.

Enpresaren jarduerak ezagutza eta informazio komertziala sor ditzake, zeinen balioa bere erreserban dagoen neurri handi batean. Enpresako langileek eskura duten informazioa modu zuhur eta profesionalean erabiliko dute, eta isilpean gordeko dute euren lanaren edukia. Nolanahi ere, ez dute beren jardueraren garapenean lortutako informazioa, datuak edo dokumentuak bere edo gertuko onurarako erabiliko.

3.8.- Legezketasun printzipioa errespetatzea

Eikak legezketasunaren printzipioari heltzen dio. Hau da, aplikatzen zaizkion lege eta arau guztiak betetzen ditu.

3.9.- Nazioarteko portaera arauak errespetatzea

Eikak nazioarteko portaera arauak errespetatu eta betetzen ditu.

3.10.- Giza eskubideen errespetua

Eikak giza eskubideak errespetatzen ditu, eta jokabide etikoak kontrolatzeko eta indartzeko informazio eta kontrol bideak ditu.

4.- TRANSAKZIOAK ETA KONTROL ESPARRU OROKORRA

4.1.- Printzipio orokorra: indarrean dagoen legeria betetzea

Eikaren intereserako egiten den edozein transakzioak indarrean dagoen legeria bete beharko du eta ikuskagarria izan behar du.

4.2.- Transakzio guztien baimena eta kopia

Eragiketa guztiak kontabilitate mailan erregistratu behar dira. Kasu guztietan, transakzioaren egileak, baimendu, erregistratu eta artxibatu dituzten pertsonak identifikatu ahal izan behar dira.

4.3.- Kontrol-agenteekin lankidetzatza

Eikatik barne auditoreekin edo/eta kanpoko agenteekin partekatzen den informazio guztia eguneratua, egiazkoa, zorrotza, pertsonal egokiak prestatua eta legea bete behar du.

5.- GIZA BALIABIDEAK

5.1.- Printzipio orokorra

Eikak Giza Eskubideen Aldarrikapenaren oinarritzko printzipioak aitortzen ditu, NBEren definizioaren arabera (Nazio Batuak, 1948).

5.2.- Aplikatu beharreko legeria

Eikako pertsona bakoitza indarrean dagoen legediaren



arabera kontratatu behar da, eta kontratua (edo indarrean dagoen dokumentua) idatziz jasota egon behar da.

5.3.- Konpentsazioa

Eikan, lansariak, ordu estrak edo irabaziak barne, indarrean dauden legeek eta araudiek eskatzen duten maila berdina edo handiagoa izango dute.

5.4.- Lan orduak

Eikako langileen lanaldia edo lan egutegia ez da legeak ezartzen duen muga baino handiagoa izango inoiz.

5.5.- Behartutako lana

Behartutako lan mota guztiak debekatuta daude Eikan. Honen barruan sartzen dira espetxe-lan behartuak, laneko morrontza edo beste edozein morrontza.

5.6.- Hurren lana

Eikan, umeen lan mota guztiak debekatuta daude. Tokiko legediak adin-muga handiagoa ezartzen ez badu, ezin izango da 15 urtetik beherako edo derrigorrezko ikasketak egin gabe lan egin (OITren 138. zk. hitzarmenean ezarritakoa izan ezik). 18 urtetik beherako langileek ez dute lan arriskutsurik egingo eta gaueko lanetik salbuetsita egon daitezke hezkuntza-beharrak kontuan izanda.

5.7.- Jazarpena

Pertsona bakoitzaren duintasuna, pribatutasuna eta eskubide pertsonalak errespetatu behar dira. Eikako langileei ez zaie gorputz-zigorrik edo hitzezko, psikologiko, sexu edo jazarpen fisikorik, ezta inolako tratu txarrik ere ezarriko.

5.8.- Diskriminaziorik ez

Eikak ez ditu bere langileak diskriminatuko haien larruazalaren kolorea, arraza, nazionalitatea, jatorri soziala, balizko ezintasuna, sexu-orientazioa, uste politikoa edo erlijiosoa, ezta haien sexua edo adinarengatik. Enpleguari lotutako edozein erabakitan beren ezintasunen eta kualifikazioen arabera zorrozki hartuko dira kontuan, besteak beste, kontratazioa, sustapena, konpentsazioak, irabaziak, prestakuntza, kaleratzeak eta enplegua amaitzea barne.

5.9.- Elkartzeko eta negoziazio kolektiboaren askatasuna

Eikak elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiborako duten eskubidea errespetatuko die langileei.

6.- LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Eikak lan ingurune seguru eta osasuntsu bat eskaintzera behartuta dago, istripuak eta lesioak saihesteko eta arriskuak gutxitzeko, eta, hala badagokio, egoitza-instalazio seguru eta osasuntsuak eskaintzera, gutxienez, aplikagarria den tokiko legedia betez.

Laneko segurtasuna kudeatzeko ISO 45001 arauaren arabeko edo antzeko sistema bat aplikatuko da.

Eikak Laneko Segurtasun eta Osasuneko legezko ikuskapenak beteko ditu, ikuskapenen ondoriozko ekintza zuzentzaileak beteko direla bermatuz, ekintza horiek garaiz dokumentatu eta burutuz.

7.- INGURUMENA

Eikak bere jarduerari aplikagarri zaizkion ingurumen araudiak eta arauak beteko ditu eta ingurumenarekiko arduratsuak diren jardunbideei eutsiko die edozein jarduera egiten duen toki guztietan.


Eikak ingurumenaren kutsadura gutxitzea bultzatuko du, baita ingurumena babesteko etengabeko hobekuntza ere.

Ingurumenaren kudeaketarako ISO 14001 arauaren arabeko sistema edo antzeko bat aplikatuko da.

Eikak ingurumenari lotutako legezko ikuskapenak beteko ditu, ikuskapenen ondoriozko ekintza zuzentzaileak beteko direla bermatuz, ekintza horiek garaiz dokumentatu eta burutuz.

8.- HORNIKUNTZA KATEA

Eikak Jokabide Kode honen eskakizunen onarpena eta errespetua bultzatuko du bere hornikuntza kateko parte



hartzaile guztiekin.

9.- CIBERSEGURTASUNA

Eika S.Coop.ek, bere filialek eta Eikarentzat edo bere instalazioetan jarduerak egiten dituen pertsona edo enpresa orok informazioaren segurtasunari dagokionez, jarduteko moduaren oinarritzko printzipioak honako hauek dira:

Konfidentzialtasuna: Tratatutako informazioa baimendutako pertsonak bakarrik ezagutuko dute, alde aurretik identifikatuta, unean bertan eta gaitutako bitartekoen bidez.

Osotasuna: Tratatutako informazioa osoa, zehatza eta baliozkoa izango da.

Erabilgarritasuna: Tratatutako informazioa eskuragarri egongo da, eta erabilzaille baimenduek eta une oro identifikatutakoek erabiliko dute, eta edozein gorabeheraren aurrean bere horretan jarraituko duela bermatuko da.

Legezatasuna: aplikagarri zaion legeria guztia betetzen dela bermatuko da. Eta, zehazki, datu pertsonalen tratamenduari buruz indarrean dagoen araudia.

Eikak informazioaren segurtasuna elementu estrategiko gisa ezartzen du, eta aplikatu beharreko lege eta arau baldintzak betetzeko erantzukizuna hartzen du.

Eikako langile guztiek ERABILTZAILAREN informazioaren segurtasunerako ESKULIBURUA dokumentua bete beharko dute, aurretik ezarritako oinarritzko printzipioak betetzeko.



10.- LANKETA, ONARPENA ETA BANAKETA

Sistemen Koordinatzailearen ardura da:

- Jo kabide Kodea planifikatzea eta lantzea
- Jatorrizko Kodea artxiboan edukitzea
- Eikako intranetean baliodun kopia argitaratzea.

Zuzendari orokorraren ardura da:

- Jokabide Kode honen eta ondoren egiten zaizkion aldaketen edukia berrikustea eta onartzea.

Jokabide Kodearen berrikuspen egoera adierazten duen edizio kodea 00 zenbakiarekin hasiko da, hasierako ediziorako, eta hurrengo aldaketetarako orden korrelatiboa jarraituko.

Jokabide Kodea ez betetzea

Jokabide Kode honekin lotutako edozein gorabehera edo kontsulta ondoko moduetan komunikatu beharko da:

- zuzenean Compliance Batzordeko edozein kideri,
- ondoko helbide elektronikoaren bidez: kanaletikoa@eika.es
- barne-postontziaren bidez idatziz Compliance Batzordearen arretarako, edo
- posta bidez, Compliance Batzordearen arretara, ondoko helbidera: Eika S.Coop., Urresolo 47, E-48277 Etxebarría (Bizkaia) – (Spain)

Compliance Batzordeak komunikatzen duen pertsonaren konfidentziasuna bermatuko du.

JOKABIDE-KODEA BETETZEKO ADIERAZPENA

Honako honen bidez adierazten dugu Eikaren Jokabide-Kodea jaso dugula eta gure jarduera guztietan haren printzipioak eta betekizunak betetzera konprometitzen garela.

Erakundearen izena:

Helbidea:

Kargua:

Sinadura:

Data: